



# **ARRATIAKO GAZTE PROGRAMA** **2015-2016**

## **XEDEA**

Aisialdi osasungarria, parte-hartzailea eta integratzailea bultzatzea denbora librean Arratiako gazteen artean (12tik 18 urtera).

## **HELBURU OROKORRAK ETA ZEHATZAK**

- Topaketa eremu arautua sortzea.
- Aisialdiaz eta denbora libreaz modu osasuntsuan DISFRUTATZEA.
- Giza harremanak, integrazioa eta parte-hartzea bultzatzea.

Helburu zehatzak:

- Gazteei alkoholaren eta beste droga batzuen kontsumoan oinarritutako aisialdiaz desberdinak diren bestelako aisialdi-kontzeptuak proposatzea.
- Gazteek gizarteko aisialdi-zerbitzuekin duten harremanari mesede egitea.
- Tolerantzia eta desberdina denarekiko errespetuan oinarritutako talde-harremanak bultzatzea, parte-hartzaileen garapen pertsonalari onura eginez.

## **HARTZAILEAK**

12-18 urte bitarteko Arratiako gazte guztiak.

Hartzaileak adin-zerrenda handi hau osatzen duten gazte guztiak direnez, beharrezkoa da ekintzak izaera integratzailean diseinatuta egotea, egokitzeko zailtasun gehiago dituzten eta taldean sartzeko laguntza gehiago behar duten adin txikikoen parte-hartzea errazteko.

## **METODOLOGIA**

Helburuak lortzeko, beharrezkoa da ondorengoak konbinatuz lan egitea:

- Alde batetik, metodologia parte-hartzailea, irekia eta malgua, parte-hartzaileei erabakiak hartzea eta taldeko zati eta protagonista direla sentitzea ahalbidetzeko.

- Bestetik, bitartekaria eta zuzendaria den metodologia, arduraduna denak funtzionamenduaren dinamikaren baitan liskarrak konpondu eta pertsonen arteko erlazioetako desorekak konpentsa ditzan.



Azken finean, parte-hartzaile guztiak errespetatuak eta onartuak senti daitezen konfiantzazko espazio bat sortzeko, beharrezkoa denean talde-dinamikan bitartekari lana egitean datza.

- Atseginak diren aisialdirako aukerak bultzatuz.
- Aisialdian heziz, testuinguru eta erlazio-forma osasuntsuetan oinarrituz.
- Pertsona bakoitzaren ezaugarriak eta beharrezkoak kontuan hartuz.
- Talde-mailan edota indibidualki sor daitezkeen proposamen eta aisialdirako aukera desberdinekiko malguak izanez.
- Parte-hartze aktiboa eta aisialdi banatua sustatuz.

## **JARDUERAK**

Jarduera-programa garatuko dute 2015eko irailaren 1a eta 2016ko uztailaren 31 bitartean.

Enpresa edo erakunde lizitatzailerak aisialdirako eta denbora librerako ekintzen proposamen xedatua aurkeztuko du, hiru bloketan:

1.-ASTEKO EKINTZAK ostiraletan 18:00etatik 20:00etara eskola-egutegian:  
(gutxi gorabehera 36 ostiral urtean)

Jardunaldiak Igorreko Kultur etxean egingo dira.

Ekintzak blokeka diseinatuko dira eta 4tik 8ra bitarteko tailerretan zehaztuko da bakoitza, gelan egin ahal izateko eta taldean parte-hartzaile berriak sartzen joatea errazteko.

Taldean denbora libreaz gozatzeko pentsatuak izan arren, tailerrak hezteko ere izango dira, gazteentzat garrantzitsuak diren gaietan: elikadura, sexualitatea, berdintasuna, erantzukidetasuna, ingurunea, elkarlana...

Belaunaldien arteko eta parte-hartze komunitarioko ekintzak sustatzen dituzten tailerrei ere garrantzia emango zaie: inauterietako moztarokak, "Beldur Barik" lehiaketarako proposamenak...

2.- HILEKO EKINTZAK urtean 11 egingo dira. Hilean bat, urtarrilean izan ezik.  
(urtean 40 ordu gutxi gorabehera)

Normalean ostiraleko ekintzetan parte hartzen duten gazte-taldeak beste ekintza batzuetan parte hartuko du hilean behin (larunbatetan), errekurso komunitarioak erabiliz. Arratiako udalerrri desberdinetako herritarrentzat antolatutako kultura-, kirol- eta aisialdi-ekitaldiei loturiko ekintzak izango dira gehienbat. (Zuhaitz eguna, mendiko martxak, lehiaketak, kirol txapelketak..)

Ekintzen iraupena eta ordutegia alda daiteke ekintzaren beraren arabera. Goizeko ekintzak (gutxi gorabehera 10:30etatik 13:30etara) edo egun osoak (gutxi gorabehera 11:00etatik 17:00etara) proposatu daitezke.



### 3.- TALDEKO IRTEERAK

Urtean zehar lehen aipatutako ekintzetan parte hartu duen taldearentzat bi irteera izango dira:

- egun bateko irteera Aste Santuko oporretan
- 3 eguneko irteera udako oporretan

Ekintza honetarako plazak 45 parte-hartzailera mugatuko dira, eta aipatutako parte-hartzaile horiekin betetzen ez badira interesaturik dauden Arratiako gazte guztiei eskainiko zaie.

### **EKINTZEN EZAUGARRIAK**

Ekintza guztiak ondorengo irizpideak jarraituz diseinatuko dira:

- Arratiarekin eta bere inguruarekin erlazionaturiko ekintzei emango zaie lehentasuna, gazteek aberastasun kulturala, inguru naturala eta komunitate mailan antolatutako ekintzak hobeto ezagutzeko.
- Ekintza guztiak ekonomikoki eskuragarriak izango dira, hau da, dohainik izango dira eta esleipendun enpresak edo erakundeak koordainketa bat ezarri ahalko die parte-hartzaileei, ekintzan parte hartzeko lekualdaketan (garraioa) kostea gainditzen ez duen bitartean.

### **KOORDINAZIOA**

Esleipendun enpresak edo erakundeak Mankomunitateak izendatutako pertsonarekin edo pertsonekin koordinatzeko proposamen bat aurkeztuko du.

Gutxienez hiru momentutan egingo dira koordinazio-bilerak: ekintza hasi aurretik, Aste Santua eta uda bitartean eta ebaluaziorako azken koordinazioa.

### **DIBULGAZIOA:**

Ekintzak zabaltzeko esleipendun enpresak edo erakundeak kartelen, triptikoen eta abarren bidezko deialdia egin beharko du, bereziki programaren hartzaile diren pertsonak biltzen diren lekuetan, eta ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEko udalerrri guztietara heldu beharko da.

Dibulgaziorako materialek agerian izan beharko dute anagrama eta Mankomunitatearen izena, azken hau erakunde antolatzailea den aldetik.